

Edgar de León

“Komunitate indigenen kontsulta eskubidea etengabe urratzen da”

Guatemalatik Euskal Herrirako bidaia egin du Edgar de León abokatu maiak, Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundearen “Bizitza jokoan” kanpainaren harira. Sorterriko errealitatearen berri emateko hitzorduz jositako agendan tokia egin digu, eta lurraren eta herri indigenen eskubideen defendatzaileen kriminalizazioaz mintzatu gara, bereziki berak defendatzen duen Bernardo Caal Xol-en kasuaz.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA  DANI BLANCO

Transnazionalak, oligarkia eta protesta sozialaren kriminalizazioa. Guatemalaren kasua txostenak lurraldearen defentsan ari diren pertsonen kriminalizazioa du mintzagai. Bertan azaltzen denez, kriminalizazioa enpresa transnacionalen eta oligarkien mesedetan artikulatutako estrategia da, eta xede argia dauka: goi-klasearen eta eliteen interes politikoak eta ekonomikoak babestea. Hego eta Erdialdeko Amerikaren luze-zabalean hedatutako praktika izan arren, Guatemalan ardaztu dute txostena, ulerturik herrialde horretako kasua paradigmaticoa dela, eta hortaz, argigarri suerta daitekeela orokortua den estrategia ulertzeko.

Gaur egungo kriminalizazioak tes-tuinguruan jartzeko, zenbait urte atzera egiten du txostenak. Hain zuzen ere, Gerra Hotzaren baitan 1960tik 1996ra arte iraun zuen gudari akabera eman zioten Bake Akordioetaraino. Ia lau hamarkadaz luzatutako gudan, Nikaraguako Iraultza Sandinistaren garaipenaren ondoko ga-

raiak izango ziren bortitzenak; sandinisten garaipenak Guatemalako gerrillariengan eragin zezakeen indartzea ahultzeko, Fernando Romeo Lucas Garcíaren gobernuak “lur suntsitua” zeritzon politika abiatu zuen maiak nagusi ziren eremuan, sarraskia eraginez; eta AEBek Erdialdeko Amerikan ofentsiba areagotu zuten –bereziki Ronald Reagan presidentziara iristean–, gerrillariak herrialde horietan irabazteko izan zitzaketen aukerak hutsa bihurtu asmoz. Ofentsibak ofentsiba, baina, gudak bere horretan iraun zuen; eta hala, txostenean argitzen denez, “bakearen alternatiba interesatua zabal-tzen joango da”. 1996an Bake Akordioak sinatu ziren.

Hasiera batean argudiatu zenez, alor politikoan demokraziarantz bidea egiteko, eta alor sozialean eta ekonomikoan aberastasunaren banaketa bidezkoago-rantz aldaketak bultzatzeko behar zuten akordio sektorialeak. Alabaina, “ondorengo gobernuak akordio horien zati handia bete ez izanak gatazka armaturik gabeko

egoera ekarri zuen herrialdera, baina ez zuen matrize politikoa –eta are gutxiago soziala– aldatu. Esan daiteke ondorengo urteetan eredu neoliberalak finkatzeko oinarriak ezarri zirela, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan bezala”. Zerbitzu publikoen pribatizaziotik hasita, politika neoliberalak abiatu ziren, kapital transnacionalarentzako lur emankorra bilakatuz herrialdea. “Sektore estrategikoen liberalizazioa eta pribatizazioa giltzarri dira herrialdea transnacionalen esku uzteko (...) estatuak laguntzen die ustiapenari zerga irigarriak ezartzen dizkiolako eta beharrezko legeak onartzen dituelako. Eta tokiko oligarkien laguntza ere badute”, dio txostenak.



Hala, transnazionalen presentzia hasiz joan den heinean, ikuskera indigenaren eta neoliberalaren arteko talka azaleratu da, gatazkari bide emanez. Uk' ux B'e elkarte maiaren hitzetan, "transnazionalen iritziz, indigenak, gure lurraldeak, ekosistemak eta biodibertsitatea, pribatizatzeko, prozesatzeko eta mundu mailako merkatuan saltzeko lehengaia besterik ez gara". Logika horren aurrean, beren lurren eta eskubideen defentsan altxatzen ari dira hainbat pertsona, eta horien kriminalizazioa bilakatu da gutxiengo pribilegiatuaren interes politiko eta ekonomikoak babesteko estrategia. Estrategia bat heriotza ere kontenplatu ohi duena. Global Witness erakundeak

argitaratutako datuen arabera, 2020an 227 lurraren defendatzaile hil zituzten, horietatik hamahiru Guatemalan.

Bernardo Caal Xol q'eqchi' indigenak bere azalean bizi du kriminalizazioa. Oxec eta Cahabón errekek eta Santa María Cahabón-eko komunitateen eskubideak defendatu ditu 2015etik, Guatemala iparraldeko Alta Verapaz departamentuan eraikitzen ari diren OXEC gune hidroelektrikoaren aurrean. Jardun horregatik atxilotu zuten 2018an, eta espetxealdi prebentiboan hiru urtetik gora izan ostean, zazpi urte eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote. Errekurtsio legalen bitartez, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. hitzarmenak dioenaren kon-

trara, gune hidroelektrikoaren eraikuntzaren inguruan biztanleria indigenari kontsultarik egin ez zitzaiola frogatzea lortu zuen Caal Xol-ek, eraikuntza lanak sei hilabetez geratzea lortuz. Horren ostean Netzone enpresako langileek (OXEC-en kontratista) salatu egin zuten, ustez enpresako langileen aurka indarkeria erabiltzeagatik. Epaimahaiak zigortu egin zuen atxiloketa ilegalak leporatuz, zirkunstantzia eta lapurreta larrigarriekin. "Muntaia baten aurrean gaude", diosku Edgar de León bere abokatuak.

Kontaiguzu Edgar, zein puntutan dago Bernardo Caal Xol-en kasua?

Gune hidroelektrikoa eraikitzen hasi di-

ren eremura jendea hasi zen agertzen, neurketak-eta egiteko, eta bertako biztanleek ez zekiten zehazki zer egin nahi zuten inguruetan. Hala, herri indigenek Bernardo aukeratu zuten beren ordezkari gisa, eta hark egindako ikerketari esker jakin zen gune hidroelektriko bat egiteko asmoa zegoela. Bernardok kontsulta egin ez zela frogatu zuenean, salaketa jarri zion enpresak, baina prozesu judizialean ez dira frogatu akusazioak.

Bi instantzia daude: lehenbizikoan zigorra ala absolutzioa agintzen da, eta bigarrenean apelazioak jarri dituztenek arrazoia duten ala ez aztertzen da. Bernardoren kasuan prozedura arrunta agortu dugu, eta orain ezohikoari ekin diogu, Guatemalako Justizia Gorte Gorenaren Zigor Auzitegia. Baina hor ere onartzen dira prozesuan ikusi ditugun joerak. Prozesuaren hasiera-hasieratik Bernardoren giza eskubideak nola urratu diren ikusi dugu; antzeman ditugu aberrazioak, sistemaren akatsak, epaileen lerratzea salaketaren atzean daudenen alde. Konstituzionaltasun Gortean babes eskeko errekurtoa aurkeztea da gertzen zaigun bakarra. Nahi genuke epaiak aintzat hartzea Bernardoren kasuan gauzatutako giza eskubideen urraketak. Baina halakorik egingo ez balu, nazioartera jotzea besterik aukerarik ez litzaiguke geratuko.

Zein dira zuen aurreikuspenak?

Guatemalako errealtatea ulertzeko ezinbestekoa da argitzea estatua botere ekonomikoek kooptatua dagoela. Une esperantzagarria bizi izan genuen Guatemalako Gobernuak eta Nazio Batuen Erakundeak estatua arazteko prozesua abiatu zutenean [2007an sinatu zuten akordioa Guatemalako Gobernuak eta NBEk, eta hortik sortu zen Guatemalako Inpunitatearen Aurkako Nazioarteko Komisioa (CICIG)] eta ustelkeriarekin lotura zeukaten enpresariak, funtzionarioak eta beste identifikatzen hasi zirenean. Pausoak eman ziren, 2015ean orduko presidenten Otto Pérez Molina kartzelaratze-raino, eta hainbat instituzio gardenago bilakatzen hasiak ziren. Baina ustelkeria berriz ari da hedatzen, eta kanporatuak izan ziren horiek berriz ari dira guztiaren kontrolaz jabetzen. Esan daiteke dena dagoela boterearen mende, ez dagoela egitura demokratikorik.

Hala bada, kontuan hartuta boterea duen sektore hori berriz kontrola hartzen ari dela, Bernardoren kasuari dagokionez ez da oso itxaropentsua egoera. Dena den



bide guztiak agortuko ditugu, esan beazala, azken babes errekurtoarekin. Horren arabera, ikusiko dugu hurrengo pausoa eman ala ez, nazioartera jo ala ez.

Pauso horrek zer suposatuko luke?

Estatuaren aurkako salaketa jartzea. Izan ere, Konstituzionaltasun Gortean prozeduran jazotako urraketek entzunger egiten badie, kasua eraman duen epaileaz harago doan arazo baten aurrean geundeko, eta barne hartuko luke estatua ere.

Nazioartera joz gero Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean salaketa jarriko genuke, aurrerago Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrera eraman ahal izateko kasua. Behin puntu horretara helduta, estatua zigortzea esperoko genukeen, Bernardoren kasuan egin diren urraketa guztiengatik.

Paraleloki, kaltetutako komunitateak eskubidedun subjektu bilakatu nahi genituzke, nahiz eta badakigun eginkizun konplexuagoa dela. Zeren Bernardori egindako kalteak erreparatu diezazkioke, aukera hori badago, baina zer gertatzen da komunitateekin? Nola geratuko lirateke? Zeren jardun hidroelektrikoak bere martxan dirau. Horregatik, komunitateak eskubidedun subjektu bilakatu nahiko genituzke, demanda jarri ahal izateko. Hala, bi kasuak eramango genituzke Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean: Bernardorena, prozesu judizialean pairatutako eskubideen urraketagatik; eta komunitateena, herri indigenei kontsultarik ez egiteagatik. Aurrera egingo balute, batzordeak gortera eramango lituzke, eta estatuiak bere burua defendatu beharko luke. Hori lortuz gero egoera

aldatzea eta estatuak eragindako kalte guztien erreparazioa esperoko genuke. Tamalez, baina, nazioarte mailako salaketa 10-15 urteko bataila juridikoa da. Baina hori da geratzen zaiguna.

Lurraren zein giza eskubideen alde altxatzen den orok du kriminalizatua izateko arriskua. Jakina denez, pertsona bat kriminalizatzen denean, pertsona horretaz harago doan intentzionalitateaz egiten da. Zeri erantzuten diote kriminalizaziook?

Kriminalizazioak erabat ohikoak dira Guatemalan. Ez baikara soilik herri indigenak kriminalizatuak izaten ari garenak, beste adierazpen sozial asko ere kriminalizatuak dira: sindikatuak, feministak, aniztasun sexualaren aldekoak... eskubideak eskatzen dituen oro. Kriminalizazioak muturreko bilakatu daitezke, pertsonak hiltzeraino –hona etorri aurretik nekazari bat hil zuten [Ramón Jiménez, CODECA Nekazarien Garapen Komiteko kidea]–. Eta familiak ere nozitzen dute: estigmatizatu egiten dituzte, kontrolatu, telefono bidez mehatxatu... Nik uste asmoa jendea isilik mantentzea dela, beldurra sartuz. Eta horretarako dituzten mekanismo guztiak erabiltzen dituzte. Zeren komunitateko norbait auzipetzen badute, helarazten ari diren mezua da haren bideari jarraitzen dionak ere berdin bukatuko duela. Horregatik ahuldu da antolakuntza komunitarioa, baina ideia litzateke komunitateak erresistentzia areagotzeko eta atxilotutako beren kideei elkartasun handiagoa helarazteko posizioan egotea.

Caal Xol-ek berak salatu izan duenez, espetxeratua izan aurretik, zenbait hedabidek bere aurkako jarrera agertu zuten. Zein funtzio betetzen dute hedabideek kriminalizazio prozesuetan?

Eskura dauden bitartekari guztiak erabiltzen dira, eta hedabide komertzialek laguntza eskaintzen dute. Pertsona estigmatizatu egiten dute, gaiztoa dela esaten zaio publikoari, garapenaren aurka dagoelako, beren hitzetan. Bidaltzen duten mezua ondokoa da: herri indigenak atzeratuta daude eta ez dute ulertzen hidroelektrika Guatemala zentzu orotan mesedetzera datorrela. Hori horrela izanda, zer demontregatik dugun kontrako jarrera. Hori da hedatzen dutena.

Errealitatea, aldiz, oso bestelakoa da. Onurak Guatemalarentzat direla

Etorkizun hobe aldarri

Grabagailua itzali aurretik indigenen sentimendua elkarbanatu nahi izan du de Leónek, azalduz Cool Xal-en borroka gure ondorengoei etorkizun hobe uzteko borroka dela. Eta itzulgingururik gabe adierazi du: kapitalismoan ez da posible halakorik.

“Herri indigenok etsaitzat dugu kapitalismoa. Guztia desegiten ari da: filosofia, jakintzak... Dena harrapakatu duen sistema izanik, nik ez dezaket horren alde apustu egin, harrapatuko duela nire seme-alaben eta datozen belaunaldien etorkizuna. Egun herri indigenen alde egiten duten baliabideak baditugu –herri indigenen eskubideen aldeko Nazio Batuen adierazpena, eta beste–, gure arbasoek borroka egin eta zenbaitek bizia galdu zutelako da. Guk bide horri segida ematen diogu, besoak gurutzatuta geratuz gero herentzia horrekin akabatu baitugu. Herri indigena asko

ari gara existentziari zentzua ematen dion zera hori berreskuratu nahian: zergatik existitzen naiz, zertarako, zein da bizitzeko dudak arrazoiak... galdera horien bueltan ari gara, zentzuren bat izan behar baitu biziak. Zentzugabea den zeozer egotekotan, herri indibidualismoa da; nire bizia fokatzeko badut janaria eta gauzak eskuratzeari begira, ez dakit zer izango nintzatekeen... automata bat, akaso. Zerbait mekanikoa. Baina pertsonok ez gaude horretarako, nik uste. Ikuspegi indigenaren arabera biziak zentzu sakonagoa du, eta horregatik mintzo gara alternatibaz. Hego Amerikako herri indigenak “ongi bizitzeaz” [Buen Vivir terminoari egiten dio erreferentzia] mintzo direnean, zertaz ari dira? Sakondu beharreko alternatiba da”.

Cool Xal-i elkartasuna adierazterakoan, alternatiba horri elkartasuna adierazi beharra azpimarratu nahi izan du.

esateak gutxi du egiatik.

Bada hamarkada batzuk dituen zentral hidroelektriko bat, Chixoy. Hidroelektrika hori enpresei energia saltzeko eraiki zen, inguruetako komunitateek ez dute han sortutako energia erabili ahal izan orain hamar urte inguru arte. Meatzaritza, monokultibo, hidroelektrika... gauza jakina da jardun horietako ezeinek komunitatea mesedetuko ez duela –eta are gutxiago herrialdea–. Baliabide oro saldu egiten dute, eta onuradunak Mexiko, Panama eta beste zenbait herrialdetako enpresa handiak dira. Adibidez, Guatemalan meatzaritza lege bat bada, eta horrek xedatzen duenez, meatzetik ateratzen denaren %1a dagokio soilik estatuari; %1 hori estatuaren eta meatzea dagoen udalerriaren artean banatzen da. Gutxi da geratzen dena. Eta hori kontutan izan gabe erauzketa jardunari ekin aurretik jazo ohi diren iruzurrak; zeren komuni-

tate indigenen kontsulta eskubidea beti, etengabe, urratzen da.

Enpresa horiek egiten duten kaltea, gainera, ez da mugatzen baliabideen erauzketara. Gaixotasunak ere eragiten dituzte, eta hori dokumentatu eta frogatu egin da. Kontua da horri jarraipena ematen asmatzea. Zeren bai, Guatemalan izan diren gisa horretako jardun oro da salatu eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrera eramateko modukoa.

Hori da panorama, eta horren aurrean jendeak antolatu beharra ikusi du. Zenbait hidroelektrikak alde egin behar izan dute komunitate batzuen erresistentziaren aurrean. Baina proiektu batzuk joan izanak ez du esan nahi iniziatiba desagertu denik. Ziurrenik, komunitateak erlaxatzen direla ikusten duten unea probestuko dute halako beste proiektu bati bide emateko. Horregatik, garrantzitsua da guardia ez jaista. ●